

aek
23.korrika



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



Dena prest Irunen, 23. KORRIKari hasiera emateko

Datorren ostegunean, martxoaren 14an, Irunen hitzordu garrantzitsua du Euskal Herriko jendarteak; izan ere, "Harro Herri" lelopean, 23. KORRIKA bertatik abiatuko da, arratsaldeko 16:00etan. Goiz-goizetik giro ezin hobea izango da hirian, hainbat ekimen antolatuta.

Egun osoko jai prestatu dute Irungo herritarrek 23. KORRIKari hasiera emateko. Egitaraua goizeko 11:00ak aldera hasiko da, Gazte Korrikarekin, eta goiz osoan hainbat ekimenez alaituko dute eguna: *Muxikoak* (Almudena Grandes plazan), bertso triki-poteoa eta artisau-azoka, besteak beste.

Ondoren, 15:30 aldera, 23. KORRIKAREN hasiera-ekitaldia izango da, San Juan plazan instalatuko den oholtzan. Bertan, AEKren hainbat eledunek hastapena emango diote lasterketa erraldoiari, Maddi Sanz arpa-joleak eta Koldo eta Xabi Sorzabalbere txalapartariak lagundurik.

Behin mezua lekuko barruan sartuta, 16:00etan abiatuko da KORRIKA. Lehen kilometroa Bidasoko AEK euskaltegiko 11 irakaslek egingo dute. Euskaltegiko zuzendari Beñat Alzagaren esanetan, «Lehen kilometro horrek islatuko du, alde batetik, euskaraz bizitzeko kemena; bestetik, KORRIKAK hauspo izan nahi duela Irunen euskalduntze-lanak tinko aurrera egiteko».

Lehendabiziko gauaren bila KORRIKAK Lapurdin barrena segitzen duen bitartean, Irunen jaiak segituko du, kontzertu eta ekitaldi anitz (denak Mosku plazaren inguruan): Burrumba elektrotzaranga tabernetatik, eta Esne Beltzaren zein Bad Sound-en kontzertuak agertokian. Horrez gain, bi txosna ere egongo dira edariez horniturik eta beste bat jatekoetz, Moskun bertan, 12:30etik gauerdia arte.

ARABA

Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus

aek
23.korrika



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



Irur, KORRIKAreu alde

Irur izango da, beraz, ostegun honetako protagonista nagusia, bertako AEK euskaltegiak eta herriko eragileek egindako lanari esker. Hilabeteetako ahalegina izan da, auzolan erraldoia, elkarlan handia burututa, eta martxoaren 14rako hiria prest izango da 23. KORRIKAreu hasierara etorriko den herritar andanari behar bezalako harrera egiteko. Maddi Sanz hasiera-jaiareu koordinatzaileareu esanetan, «KORRIKAK aukera eman digu Herriko euskaldun eta euskaltzale guztiok topo egin dezagun, eta guk euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatu nahi dugu. Irur euskaldun eta horregatik harroa ezagutzera gonbidatu nahi dugu Euskal Herri osoa».

Azkenik, azpimarratu behar da KORRIKA hasierari telebistaz (baita Interneten ere) nahiz irratiz jarraitu ahal izango diogula zuzenean, hainbat hedabidereu saioei esker.

Hasiera eguneko informazio guztia, hemen:

<https://www.korrika.eus/eu/hasiera-eguna>

Beste informazio asko, ohi bezala, KORRIKAreu webgunean:

<https://www.korrika.eus/eu/>

ARABA

Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus